

# Bidaiari etxezalea



ARITZ GALARRAGA

**N**ire egiten dut Claude Lévi-Straussek bere libururik entzutetsuenean, *Tropiko tristeak*, idatzi zuen lehen esaldia: “Gorrotu ditut bidaiak eta esploratzaileak”. Baina uda garaia iritsi eta areagotu egiten da inora bidaiatzeko irritsa, bazueta presioa: mundu guztia ihes eta ez zara zu izango tokian kieto geratuko den inozoa. Zeri buruz hitz egingo duzu gero gainera, behin uda akituta, ea inoiz ezdakitnon egon ote zaren galdetzen badizute. Urteek, eta urteei lotutako irakurketek ematen duten egonariarekin, ordea, eta lasai asko uda etxean pasata, kapaz izango zara egon ez zaren lekuez mintzatzeko. Batez ere Pierre Bayarden liburu ezin utilago bat, *Nola hitz egin egon gabeko lekuez?* irakurtzen baduzu.

Bai, ze nik esango banizu leku bati buruz hitz egiteko biderik onena norbere etxean geratzea dela, bada, agian ez zenidake sinetsiko, baina Bayardek dio, lekuan berean egoteak ez dizula ziurtatzen leku horrekiko ezagutza handiagoa. Leku bat ezagutzea edo leku bati buruz idaztea fisikoki leku horretan egon edo ez egotearekin nahasi behar ez diren lanak baitira. Leku bati buruz idazterakoan imajinazioak eta hausnarketak dute garrantzia, eta oinarritzakoa da kontakizunaren indar narratiboa. Akaso emaitza ez da izango leku autentikoa, baina izan daiteke leku horren esentzia, leku horrek iruditeria komunean haragiztatzen duena. Leku baten egia lekuan berean ez balego bezala. Alegia, besteari zutaz hitz egitean, eta ez leku errealez, orduan geundek gertuen lekuak ezagutzetik eta besteei ezagutzera ematetik.

Filosofoiari gertatzen zitzaiona gertatzen zait niri ere: eguneroko paseoan, leku ezagunetan, aukera gehiago daukadala bestea aurkitzeko, eta ez nigandik sobera urruneko bidaietan. Izan ere, bada munduarekiko egia modu bat, bidaiari etxezaleak agerian uzten duena. Prest naiz udatik bueltan, hartara, fisikoki egingo ez ditudan bidaia guztiak zuei kontatzeko. ●



ADUR

## “ESAN ZIDATEN PRESTATZEKO, EZ NINTZELA AMA IZANGO”

### SAIOA AGIRRE, 13/13 SUMARIOAN AUZIPETUA

Euskal presoen abokatu eta presoen aldeko mugimenduaren parte izandako zazpi pertsonaren aurkako epaiketa ari dira egiten Espainiako Auzitegi Nazionalean. “Poltsa bat jarri zidaten buruan, eta arrastaka eraman ninduten galdeketa gela batera. Hormaren kontra jarri ninduten. Galdetu zidaten ea ba al nekien zergatik nengoen hor; ezetz esatean, kolpe bat jo zidaten buruan. Berrito galdetu zidaten, berrito jo ninduten. Arropa kentzen hasi ziren. Erresistentzia jarri nuenez, joka hasi ziren. Biluzik nengoen. Ariketa fisikoak egitera behartu ninduten; atximurka egiten zidaten titiburuetan. Bagina birritan ukitu zidaten. Zigarroaren kea nire poltsaren barrura bota zidaten”. 2021/07/14

